

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

5282

EBAZPENA, 2021eko irailaren 13koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ekintza humanitarioko proiektuen lerroko ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak ematen baitira 2021erako.

Ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuan ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dira, eta bi jarduera-mota bereizten. Alde batetik, ekintza humanitarioko proiektuak, krisi humanitarioen eraginpeko pertsonak babesteko direnak; beste aldetik, ekintza humanitarioko estrategiak, epe ertaineko eta aurrekontu handiagoko esku-hartzeak direnak, zeinek, aipatutako babes-ekintzez gain, erakunde humanitarioak sendotzeko eta euskal herritarrak sentsibilizatzeko bestelako ekintzak ere jasotzen baitituzte.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2021eko martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez (2021eko martxoaren 17ko EHAA, 55. zk.), ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak iragarri ziren 2021eko ekitaldirako. Laguntza horien zenbatekoa, guztira, 6.000.000 eurokoa da.

Aipatutako deialdi-ebazpenaren 4. artikulua horretarako izendatu duen balorazio-batzordeak laguntzak emateko egin duen proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa teknikoa egin eta gero, proposatu da 7 eskabide onartzea. Horien zenbatekoa, guztira, 1.358.318,20 eurokoa da. Ondorioz, aipatutako deialdirako emateko geratzen den zenbatekoa 54.097,76 eurokoa da. Hori guztia kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean jasotako entitateei ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2021eko martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak, eranskin horretan aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– Bazter uztea ebazpen honen II. eranskinean ageri diren entitateek aurkeztutako eskaerak, eranskin adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Ebazpen hau entitate interesdunei jakinaraztea.

Laugarrena.– Agindua ematea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, herritar oro jakinaren gainean egon dadin.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpenik eman gabe, errekurtsua ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 13a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2021eko urriaren 18a, astelehena

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza (eurotan)
PRE-2021EH/0028	Fundación Unicef-Comité Español	Atención integral a niños y niñas liberados de grupos y fuerzas armadas en Sudán del Sur. Fase II	Hego Sudan	52	200.000,00
PRE-2021EH/0029	Fundación Mundubat-Mundubat Fundazioa	Fortalecimiento del sistema de salud mental y apoyo psicosocial de protección y respuesta comunitaria frente a vulneraciones de derechos humanos en la Franja de Gaza	Palestinako Estatua	68	200.000,00
PRE-2021EH/0031	Asociación España con ACNUR	Protección y acceso a servicios de salud de calidad para población camerunesa refugiada en Nigeria	Nigeria	51	200.000,00
PRE-2021EH/0032	Cruz Roja Española	Asegurada la atención sanitaria de calidad a la población refugiada y local de Zrariéh, región de Saïda, Líbano	Libano	50	200.000,00
PRE-2021EH/0033	Fundación Save The Children	Respuesta humanitaria a las necesidades de acceso agua, saneamiento e higiene de las personas desplazadas por el conflicto de Darfur Occidental, Sudán	Sudan	51	197.900,00
PRE-2021EH/0036	Asociación España con ACNUR	Protección y acceso a servicios de salud de calidad para la población sudanesa refugiada en Chad	Txad	52	194.954,00
PRE-2021EH/0037	Asociación Mundu Bakean	Fortaleciendo la asistencia humanitaria de las personas migrantes, en tránsito, y solicitando asilo en el Departamento de Petén. Guatemala	Guatemala	50	170.577,20

II. ERANSKINA
BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Espejiente	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Arrazoiak
PRE-2021EH/0030	Solidaridad para el Desarrollo y la Paz	Protección integral de la salud del pueblo palestino durante la pandemia de COVID19.	Palestinako Estatuak	Ez du betetzen 90/2019 Dekretuaren 16.1 artikuluan jasotako betebeharrak, hain zuzen ere gutxienez 50 puntu lortzea
PRE-2021EH/0034	Emigrados/as sin Fronteras	Protección temporal y reubicación a personas líderes sociales y defensoras de los derechos humanos amenazadas y en riesgo de muerte en el marco de la pandemia covid19, en Colombia.	Kolombia	Ez du betetzen 90/2019 Dekretuaren 16.1 artikuluan jasotako betebeharrak, hain zuzen ere gutxienez 50 puntu lortzea
PRE-2021EH/0035	Misiones Salesianas	Ayuda de emergencia para familias desplazadas por el conflicto armado en Tigray, norte de Etiopía	Etiopia	Ez du betetzen 90/2019 Dekretuaren 16.1 artikuluan jasotako betebeharrak, hain zuzen ere gutxienez 50 puntu lortzea

2021eko urriaren 18a, astelehena

III. ERANSKINA
UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Arrazoia
PRE-2021EH/0038	Asociación Africanista Manuel Iradier	Proyecto de asistencia humanitaria y de protección para el restablecimiento de los medios de vida de la población refugiada burundesa que viven en el campamento de Lusenda, en el sitio de Mulongwe y fuera de la comunidad de acogida, afectados por la catástrofe y el contexto de Covid-19, en el territorio de Fizi, Kivu del Sur en el Este de la RD del Congo'	Kongoko Errepublikoa Demokratikoa	Funtsak agortzeagatik
PRE-2021EH/0039	Coopera-Cooperación Vasca al Desarrollo	Apoyando la creación de Resiliencia entre la población víctima del conflicto en Kivu Sur. RD Congo	Kongoko Errepublikoa Demokratikoa	Funtsak agortzeagatik